



# Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

## ***Euskal Antzerkiaren Dokumentazioa***

2014ko azaroak 20 eta 27

### **“Euskal antzerkiaren funtsak liburutegi eta artxibategietan”**

**Azaroak 20, osteguna.**

**Koldo Mitxelena Liburutegiaren egoitza, Donostia.**

**Goizeko 10:30ean**

Euskal antzerkiaren inguruko funtsak dituzten liburutegi eta dokumentazio profesionalen arteko jardunaldia izan da. Erakunde bakoitzak dituen funtsen berri eman du eta ondorengo mahai-inguruan, euskal antzerkiaren inguruan eskaintzen diren zerbitzuak nola hobetu gogoetatu da.

- 📌 [Baionako Mediateka](#) eta [Euskal Museoko Liburutegia](#).  
Marie-Andrée Ouret eta Marie-Hélène Déliart.
- 📌 [Euskaltzaindia. Azkue Liburutegia](#).  
Pruden Gartzia.
- 📌 [Euskal Kultur Erakundea](#).  
Pantxoia Etchegoin.
- 📌 [Koldo Mitxelena Liburutegia](#).  
Sorne Matxinena eta Frantxi Lopez Landatxe.
- 📌 [Sabino Arana Fundazioa. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia](#).  
Iñaki Goigana.
- 📌 [Su Azia](#).  
Maddi Oihenart.

**Moderatzailea:** Nere Erkiaga. [Xenpelar Dokumentazio Zentroa](#)

**Informazio guztia, [www.mintzola.com](http://www.mintzola.com) webgunean**

## **Mahai-inguruan zehar aipatutako gaiak eta iritziak**

### **Entzuleen artean iritzi-trukean parte hartu dutenak:**

- Aizpea Goenaga. Antzerki eragilea eta antzezlea.
- Patri Urkizu. Antzerki eragilea eta ikerlaria.
- Eugenio Arozena. Antzerki eragilea eta biltzailea.
- Aritz Zerain. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea.
- Frantxi Lopez Landatxe. Gipuzkoako Foru Aldundia, Liburutegia, Kultur Sustapen eta Hedapenerako zerbitziburua.

### **Agertutako gaiak eta iritziak:**

#### **Euskal Antzerkiaren dokumentazioaren egungo egoeraren argazkia:**

- **Funtsak oso sakabanatuta daude**
  - o Liburutegi/artxibo ugaritan daude funtsak eta erakundeok ez dute elkarren berri.
  - o Kultur elkarte, herri telebista eta irratietan funtsak daude.
  - o Herritarrek bildutako funtsak etxeetan edo zerbitzurik eskaini ezin duten erakundeetan daude.
- **Dokumentazio galera asko dago egungo antzerkian:**
  - o Hegoaldean 60. hamarkadatik aurrera egindako emankizunak ez dira jaso.
  - o Argitaratutako lanak dira errazen aurkitzen direnak liburutegietan. Baina argitaratu gabeko lanak ugariagoak dira:
    - Kolektiboan egindako lanak dira sarritan eta ez dira publikatu.
    - Saritu gabeko lanak ez dira argitaratzen.
  - o Grabatu direnak ere galtzen ari dira, kontserbazio arazoengatik.
- **Interes gutxi:**
  - o Ikerlari, erabiltzaile gutxik galdetu dute antzerkiagatik liburutegi eta artxiboetan.

#### **Euskal antzerkiaren egoera ez da ona**

- **Bilakaera, Hegoaldean, gainbeherakoa:**
  - o Antzerkia ez da euskal kultura barruan ahaide pobrea: diru asko mugitzen da antzerkiaren bidez.
  - o Hegoaldean, XX. mendean zehar zuen garrantzia neurri handi batean galdu du. Bertsoaritzak gora egin du, faktore askorengatik; eta euskal antzerkiaren bilakaera berriz, gainbehera joan da.
- **Erakunde publikoen eraginkortasun falta.**
  - o Antzerki erabaki politiko batengatik bertan behera gelditu zen. Eta lan honen beharra badago.
  - o Antzerki funtsak egoki tratatu eta hedatzeko baliabideak urriak dira.
  - o Kultura bera da politika orokorrean ahaide pobrea

### **Iragana ezagutu, altxorrek ezagutarazi beharra.**

#### **Antzerkiaren dokumentazioaren tratamenduari balio erantsia gehitu behar zaio**

- Atzerik (iraganik) gabe ez dugu aurrerik (etorkizunik) izango. Beharrezkoa da lehenago zer egin den ezagutzea, berriak sortzeko, sorkuntza biziberritzeko.
- Euskal Kultura ahula da eta gure historia txertatzea oso zaila da gaur egun. Atzera begirako ezezagutza handia dago eta hori behar beharrezkoa da aurrera egiteko. Balio erantsia beharrezkoa da antzerkiaren dokumentazioaren tratamenduan, altxorrek ezagutzera emateko gazteen artean.
- Katalogazio hutsarekin utziz gero, askok ez ditu aurkituko. Ez dira funtsak ezagutzen, katalogatuta eta digitalizatuta egon arren. Zerbait egin behar da, gazteen artean ezagutzera emateko. Lurpetik atera behar dira altxorrek. Bertsolaritzarekin Xenpelar Dokumentazio Zentroak BDB atariaren bidez egiten duena eredarria da.
- Jarduera bidez funtsen hedapena egin behar da: erakusketak, jardunaldiak, eta abar.

#### **Dokumentazio bilketa herritarren bidez (norbanako eta taldeak) egin behar da**

- **Herritarrek egindako bilketa oso garrantzitsua eta ordezkaezina da**
  - o Adibideak:
    - Eugenio Arozenak egindako lana: 2000 obra baino gehiago bilduta ditu. Gehienak Oiarzungo Udalak gordeta ditu, besteak etxean.
    - Su Azia elkarteak egindako lana
    - Eta beste askorenak....
- **Erakunde publikoek ezin dute bilketa lan hori egin.**
  - o Herritarrek, norbanakoek edo taldeek duten indarra eta ezaugarriei esker egiten da bilketa mota hori.
  - o Erakundeen eta biltzaileen arteko elkarlana eratu behar da ezinbestean, egungo dokumentazioa nahiz historikoa bildu ahal izateko.
  - o Euskal Herrian ditugun egituraketa administratiboek ere mugak eragiten dituzte erakundeek egin dezaketen bilketan eta antolaketan.

## Liburutegi/artxiboetako funtsen ATARI BAKARRA behar da

Zerbitzu publikoa ematen duten erakundeen artean elkarlana ezinbestekoa da, indarrak bilduta egin beharreko lanak egin ahal izateko:

- **Bilketa:**
  - o Falta diren funtsak jaso liburutegi eta artxiboetan.
  - o Antzerkiaren bilketak dokumentazio mota asko behar du, ez testuak bakarrik:
    - Grabazioak
    - Argazkiak
    - Kartelak eta esku orriak
    - ...
  
- **Katalogo kolektibo bat sortu behar da, atari bakar bat:**
  - o Ezezagutza orokorra dago, nora bideratu jakin ez. Atari nagusi baten beharra dago, informazioa trukatzeko estandarren bidez eratua (OAI, Marc,...).
  - o HELBURU PUBLIKOA nagusitu behar da, dokumentuetara sarbidea erraztu: artxibo eta liburutegien arteko katalogo kolektiboak lortu behar dira.
  - o Ipar Euskal Herrian dagoen katalogo kolektiboak (*Bilketa* izenekoa) liburutegi, artxibo eta elkarteetako datu-baseen artean loturak egin eta sarean jarri ditu, denak batera bilatzeko moduan.
  - o Ipar Euskal Herriko katalogo kolektiboa Euskal Herri osora nola hedatu aztertu behar da.
  - o Euskal Herritik kanpo diren funtsen berri ere eskaini daiteke atari bakar horretan.
  
- **Digitalizazioa:**
  - o Digitalizatutako lanen loturak eskaini behar dira atari bakar horretan.
  - o Digitalizazioa sustatu.
  
- **Katalogazioan konpondu beharreko arazoak daude:**
  - o Euskal antzerkian publikatu ez den dokumentazioa da gehiengoa, eta sarritan ez dago katalogatuta, edo katalogazio oso orokorrarekin, eta hori, desagertuta egotea bezala da, ez du inork aurkituko. Hor arazo handia dago liburutegi eta artxibo orokorretan.
  - o Dena xehetasunekin katalogatzeko ahaleginak eta baliabideak jarri behar dira.
  - o Katalogazio teknikak bateratu behar dira:
    - Hizkuntza ezberdinetan katalogatzen da
    - "Euskal antzerkia" kontzeptuarekin hizkuntza eta kokapen geografikoa nahasten dira.

## Dokumentazio zentro berri bat sortu beharraz

*Bertsolaritzaren dokumentazio sistema espezializatua da. Adibidez,*

*1. Bertso-saioen agenda tresna garrantzitsuenetarikoa da, ez bakarrik egunotan izango diren saioen berri emateko:*

- *Saioen grabazioa planifikatu eta grabatzaileak bideratzeko*
- *Dokumentuen identifikaziorako tresna oinarritzkoa (daturik gabeko argazkiak, grabazioak, eta abar)*
- *Bertsolaritzaren bilakaeraren datuak izateko: lekuen arabera zein gora eta zein behera, saio-motak, adina, sexua,...*

*2. Prentsa hustuketa sistematikoa ere oinarritzkoa da, bertsolaritzaren berri liburuetan ez baitago.*

*3. Bertsoaldien katalogazio analitikoa*

*4. Doinutegia*

*Eta abar.*

→ *Euskal antzerkiaren dokumentazioak behar du dokumentazio sistema espezializaturik ala egun dauden egituretan ematen den informazio eta baliabideekin nahikoa da?*

*Galdera honek erantzun ezberdinak jaso ditu:*

- **Ez da behar:** Dauden liburutegi eta artxiboen artean atari bakarra eratu, eta dauden funtsak ondo antolatzea.
- **Baliabideak behar dira:** Ohiko jarduerekin ezin iritsi, indarrak bildu behar dira. Baliabideak ere beharko dira antzerkiaren funtsak behar den bezala katalogatzeko. Helburu orokorrak dituzten liburutegi eta artxiboek indar berezia (baliabideak) egin beharko dute antzerki funtsak katalogatu eta sarean jartzeko
- **Bilketa** ezin egin hain eraginkor erakunde publikoetatik. Elkarlana beharrezkoa da: erakundeek baliabideak jarri, diruz hornitzeko ardura eta elkarteek bilketa egin.
- **Bai behar da.** Egitura berezi bat sortu behar da elkarrekin lan egiteko, sarea indartu eta bilketa bultzatzeko. Erakunde publikoetan gorde behar dira funtsak.
  - Bertsozale Elkarteak sortu zen momentuan bertan lehenetsi zuen dokumentazio zentroaren egitasmoa.
    - Erakundeetatik ez zen jaso dirurik hasierako urteetan.
    - Krisi gogorrena gertatu zenean, 90. hamarkada erdian, lautik bi langile langabeziara joan ziren eta dokumentalista biak mantendu ziren.
    - Egitasmo guztien oinarria da> sustapena, transmisioa eta ikerkuntza.

### **LIDERGOA izango duen erakundea eta liburutegien arteko EGIAZKO SAREA egin behar da.**

- Egiazko sarea, teknikoki eta profesionalki (liburutegi, artxibo, elkarteak, telebista artxiboak,...)
- Sistematizazioa eta bilketa egin/eragingo duen enbor bat behar dela argi ikusten da. Nork lideratuko du?

Erantzun batzuk:

- Interesa duten erakundeek, ikerlariak tiratuta
- Ahozkotasunean kokatuta egon behar du
- Euskal Kultura bere osotasunean hartuko duen erakunde/sare batek
- Mintzola
- Koldo Mitxelena Liburutegia

#### **- Lideratu beharreko lanak:**

- Balio erantsia gehitu behar zaio antzerkiaren dokumentazioaren tratamenduari
- Bilketan:
  - Kanpainak egin behar dira bilduta dagoena jasotzeko eta zerbitzu publiko bidez eskaintzeko
    - Antzerki taldeak
    - Norbanakoak
  - Egun egiten den antzerkiaren bilketa-sarea eratu eta sustatu behar da.
    - EITB erakunde publikoa da eta bere baliabideak/plataforma baliatu beharko litzateke euskal ondarea eskuratzeko.
  - Lurraldetasunak oztopoak sortzen ditu
- Atari bakarra sortu eta zabaldu behar da
  - Estandarren erabilpena zabaldu beharra dago, informazioa trukatzeko (OAI, Marc, Dublin Core,..)
  - Euskal Herri osoko liburutegi, artxibo eta bestelako erakundeen katalogo eta datu-baseetan antzerkiari buruz dagoena bildu
  - Euskal Herritik kanpo dauden antzerkiari buruzko funtsak ere bildu
- Katalogazio tekniken bateratzea egin behar da
  - Terminologia bateratu:
    - Hizkuntza ezberdinetan katalogatzen da
    - Kontzeptu bera erabiltzen da hizkuntza eta lurraldea izendatzeko
  - Pastoralak, maskarak eta euskal kulturak berezko dituen adierazpideak ere bildu
  - Argitaratu gabeko materialen katalogazio teknikak adostu